



Dimako Udala

DIMAKO UDAL OSOKO BILKURAK, 2016KO URRIAREN 24KO SAIOAN, AHO BATEZ ONARTUTAKO ONDORENGO ADIERAZPENA:

DIMAKO ZINEGOTZI ETA ALKATEEN ADIERAZPENA

2016KO URRIAK 23

Historian zehar, eta ez gitxitan, gure ordezkariak Euskal Herriarentzat burujabetasunaren eskubidearen defentsa egin izan dabe, batzuetan herri mailan, eta beste batzuetan, garaian garaiko erakundeetan.

Esate baterako, guerra aurretik, 1936ko zezeilaren 23an Dimako udalak, gehiengoz, Espainiako Errepublikako Gobernuari eskatu eutsen **1839ko URRIAREN 25eko LEGE DEKRETOA bertan behera ixtea**, ze lege horrek burujabetasunaren adierazle ziran foruak murriztu egiten ebazan.

Gaur, hemen batuta, Frankoren diktaduraren ostean, Dimako herriaren zerbitzura egon garan eta gagozan alkate eta zinegotziok **EUSKAL HERRIARENTZAT ERABAKITZEKO ESKUBIDEA ALDARRIKATZEN DOGU**; horrela, geuk be, gure aurretik kolore, edade, pentsakera eta izakera desbardineta dimoztarrak egindako bidari jarraipena emonaz.

Egiten dogun aldarrikapena 3 arrazoietan oinarritzen dogu:

1. **EUSKALDUNOK NAZIO BAT OSATZEN DOGU.**
2. **EUSKAL HERRIAK HISTORIAN ZEHAR IZAN DITUEN ESKUBIDEAK BERRESKURATZEA GURA DOGUZ.**
3. **EUSKAL HERRIAREN BURUJABETASUNA GURA DOGU**

Eta azkenik, demokrazian sinesten dogulako, aurten **ZEMENDIAREN 27AN DIMAN EGINGO DAN HERRI GALDEKETA**-gaz bat egiten dogula adierazoten dogu.

Diman, 2016ko urriaren 25ean.

Udalbatzarburua.

